

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2016-17

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe kosta	kodea: <i>código:</i>	
etapa: <i>etapa:</i>	Batxillerra	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2.
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Marrazketa tekniko II		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Teknologia, Matematika		
diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i>	Matematikarako kompetentzia. Teknologiarako kompetentzia. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Graciela Badosa	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Competencia para la comunicación verbal, no verbal y digital
2. Competencia para aprender a aprender y a pensar
3. Competencia para convivir
4. Competencia para la iniciativa y espíritu emprendedor
5. Competencia para aprender a ser.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Aintzat hartzea zer eginkizun eta garrantzi duen marrazketa teknikoak norbanakoen eta gizarteen bizitzan	1. Ingurunean eta arte-adierazpenetan marrazketa teknikoko baliabideak bereiztea eta zertarako diren arrazoitzea.
2. Marrazketa teknikoaren berezko terminologia, lexikoa eta tresnak zein diren jakitea, eta modu egokian erabiltzea	2. Loturak ezartzea lan-prozesuetan izaten diren desberdintasunen eta antzekotasunen artean, eta ikasgaiaren beraren lexikoa eta teknologia behar bezala erabiliz.
3. Ebazpen eta eraikuntza grafikoak eraginkortasunez egitea	3. Aintzat hartzea prozesuaren zorrotasun grafikoa, argitasuna, zehaztasuna eta ebazpen eta eraikuntza grafikoaren prozesua, azken adierazpen hobeazina egiteko.

<p>4. Geometria metrikoaren oinarriak jakin eta ulertzea, eta haren baliabideak egoki erabiltzea,</p> <p>5. Adierazpen-sistemak aintzat hartu eta erabiltzea espazioan problema geometrikoak ebazteko eta planoan hiru dimentsioko formak irudikatzeke, eta problema bera sistema desberdinez ebaztean lortutako emaitzak alderatzea</p> <p>6. Marrazketa teknikoaren oinarriak jakin eta ulertzea</p> <p>7. Krokisa, bozetoa eta apuntea zer diren jakitea eta zein garrantzitsuak diren jabetzea, ezinbesteko elementuak baitira diseinu-prozesuan eta konponbideen bilaketan</p> <p>8. Banaka eta taldean, edozein eraikuntza geometrikoren plangintza egitea eta hura egiteko prozesuaz hausnartzea</p> <p>9. Marrazketako eta diseinuko teknologia eta programekiko interesa izatea.</p>	<p>4. Geometria lauko problemak ebaztea, proposamenak, prozedurak eta ebazpen-aukerak arrazoituz baloratuta, eta ebazpen-prozesuan zorroztasunez jokatuta.</p> <p>4.1 Grafikoki zehaztea industriako edo arkitekturako (eraikuntza) pieza eta elementuak, egoki aplikatuta bistei, ebaketei, sekzioei, hausturei eta akotazioari buruzko arauak eta modalitate bakoitzeko sinbologia.</p> <p>5. Adierazpen-sistemak erabiltzea, batzuen eta besteen komunikazio-aukeren alderaketak egitea, eta egoera bakoitzean ikuslearentzat egokiena dena aukeratzea.</p> <p>6. Sistema diedrikoa erabiltzea puntuen, zuzenen, irudi lauen, solidoen eta abarren posizio- eta neurri- erlazioak ezartzeko, eta bere irizpideak ezarriz kasuan-kasuan egokiena den metodoa erabiltzea.</p> <p>6.1 Espazio-ikuspegia menderatzen duela erakustea hiru dimentsioko objektuak adieraziz, zenbait motatako perspektiba axonometrikotan marraztuta, eta adierazpen-sistema horien ezagutza espezifikoa izatea.</p> <p>6.2 Objektuak marraztea perspektiba konikoan, proiektzio diedrikoan emandako datuetatik abiatuta, eta zuzen interpretatzea ikuspuntuaren posizioari eta koadroaren planoari eta plano geometrikoari dagokienez.</p> <p>7. Krokisak, bozetoak, apunteak eta perspektibak esku hutsez marraztea, adierazpen grafikoan ezinbestekoa den trebezia eta azkartasuna lortzeko.</p> <p>8. Eraikuntza geometrikoko proiektuak egitea eta haren prozesuetan parte-hartze aktiboa eta arduratsua izatea, izan banako proiektuak izan taldeko proiektuak, eta proiektuaren alderdi estetikoak eta teknikoak hobetzeko ideiak eta iradokizunak ematea.</p> <p>9. Jakitea ordenagailuz lagundutako diseinuak zer ezaugarri eta funtzio dituen eta zertarako den erabilgarri, eta aintzat hartzea haren adierazpen- eta komunikazio-aukerak.</p>
---	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1go Ebaluaketa

Geometria eta forma

- Geometria artean eta naturan.
- Transformazio geometrikoa eta haien aplikazioa inguruneko elementuetan eta ekoizpen artistikoetan.

Hizkuntza grafikoa eta geometrikoa

- Oinarrizko trazadurak planoan.
- Proporzionaltasuna eta antzekotasuna.
- Eskalak.
- Poligonoak.
- Transformazio geometrikoak.
- Ukitzeak.
- Kurba ziklikoak.
- Kurba konikoak.

2.Ebaluaketa

Adierazpen-sistemak

- Sistema diedrikoa.
 - Ebakidurak.
 - Planoen arteko eta zuzenen eta planoen arteko ebakidurak.
 - Paralelotasuna eta elkarzutasuna.
 - Eraispinak, biraketak eta plano-aldaketak.
 - Distantziak.
 - Benetako magnitudea adierazpenean. Angeluak.
 - Zuzenkien eta irudi lauen benetako magnitudeak lortzea.
 - Forma poliedrikoak eta biraketa formak aztertzea eta egitea.
 - Garapenak.

3.Ebaluaketa

- Sistema axonometrikoa.
 - Axonometria ortogonal eta zeiharra.
 - Proiekzioak eta murrizketa-koefizienteak.
- Sistema konikoa.
 - Sistemaren oinarriak eta elementuak.
 - Perspektiba zentrala eta zeiharra.

Normalizazioa

- Adierazpen-printzipioak: bisten kokapena eta izena.
- Bistak aukeratzea eta bista partikularrak.
- Oinarrizko formei kota jartzea planoan.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Ikasgaien azalpena arbelan egindako marrazkiak, fotokopiak, bideoak, interneteko informazioa, ikasleak apunteak hartu beharko ditu.
- Klasean emandako kontzeptu teorikoen aplikazio ariketa praktikoak egin. Beharrezkoa denean, gai bateaz ariketa gehiago edo desberdinak landuko dira, ikasleak gaia jakin arte.
- Gainbegiratu klasean egindako ariketak eta marrazketarako tresnen era egokian erabilera.
- Ariketa guztiak arbelan egiteaz gain talde osorako ahozko azalpena ematen da. Gero klasean sortzen diren zalantzak banakako eran edo elkarrekin ebazten dira.
- Ariketen zuzenketa eta balorazioa.
- Ebaluazio erdian eta amaieran egindako azterketa.
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira bertan landutakoa 3. Ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

BALIABIDEAK

Ikasleak edukiak bilatuko ditu material didaktiko eta ahozko azalpenen bitartez: arbela, ordenagailua, proiektorea, arbela digitala, bideoak edo aurkezpenak, programa informatiko desberdinak, liburuak, fotokopiak, internet tresnak izanik.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>1. ATALA: IKASLEAREN EKOIZPENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan koadernoak: apunteak - Klasean egindako ariketak - Etxean egindako ariketak - Aparteko banakako eta taldeko lanak - Klaseko apunteak - Ahozkoak klasean - Azterketak: selektibitate egitura edukiko dute. <ul style="list-style-type: none"> • Lan bakoitza 1 eta 10 puntu bitartean kalifikatuko da. • Ikasgaiaren nota orokorra lan guztietan lortutako kalifikazioen arteko batezbestekoa izango da. <p>2. ATALA: BEHAKETA SISTEMATIKOA.</p> <p>EGUNEROKO BEHAKETA: ahalegina, aurrerapena, ikasitakoaren erabilpena irakaslearen koadernoan eta</p>	<p>Tresnak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Klasean egindako ariketak. Garbitasuna, aurkezpena eta epean entregatzea. • Etxerako lanak. Garbitasuna, aurkezpena eta epean entregatzea. • Hiztegi teknikoak egokia erabiltzea. 20% • Azterketak. Ariketen ebazpena eskatutakoari egokitzea, teknikoki ondo eginda egotea eta normalizazioaren arauak betetzea. 70% • Jarrera. • Interesa adierazi • Epe barruan entregatu • Ikasleak bere ikaskide eta ikasgaiarekiko

<p>kontrol orriak</p> <ul style="list-style-type: none">• Gelan behaketa zuzena.• Gelan egindako lanak.• Etxean egindako lanak: materialak, irudiak, adibideak...bilatzea,• Ebaluaketa bakoitzeko lanak. <p>Nola antolatzen duten lana eta taldea.</p>	<p>dituen jarrera</p> <ul style="list-style-type: none">• Irakaslearen azalpenak arretarekin entzun, apunteak hartu eta ulertu.• Klasean parte hartzea.• Gela eta materialak zaintzea• Materiala klasera ekartzea• Txanda errespetatu• Eguneroko lana.• Asistentzia, puntualitatea. <p>Klasera egunero joatea. Ikasleriak hutsegite ehuneko 20 a eginez gero, ebaluazio jarraitua eskubidea galduko du. Hala ere ebaluaketa bakoitzean hutsegiteak eta berandu etorriak kontutan hartuko dira.</p> <p>10%</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspenera, errekuerazio-sistema...].</p>	
<p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Ebaluaketan</p> <ul style="list-style-type: none">• Epetik kanpo entregatutako ariketetan atera daitekeen gehieneko nota 5 da.• Bi azterketariko batean 2 puntu baino gutxiago ateraz gero ez da batz bestekorik egingo. <p>Berreskurapena</p> <ul style="list-style-type: none">• Suspenditutako ebaluazioa berreskuratzeko ikasleak azterketa bat egingo du. Notak jaso ondoren aste bat daukate azterketa prestatzeko. <p>Kurtso amaieran</p> <ul style="list-style-type: none">• Kurtsoaren nota, hiru ebaluaketen batez besteko aritmetikoa da. Ebaluaketaren bat suspendituta baldin badago kurtsoa suspendituzat ematen da eta ikasleak ezohizko edo aparteko azterketa bat egin beharko du, non irakasgaiaren eduki guztiak sartuko diren.• Kurtso amaieran irakasgaia suspendituta izango balitz, ikasleak irakasgaiaren eduki guztiei buruzko ezohizko edo aparteko azterketa bat egingo beharko du, non irakasgaiaren eduki guztiak sartuko diren. Irakasgaia gainditzeko ezohizko azterketaren gutxieneko nota 5 izateaz gain, beharrezkoa izaten da klasean egindako lan guztiak garaian entregatzea. Ikasleak atera daitekeen gehieneko nota 6 da. <p>Pendientea</p> <ul style="list-style-type: none">• Aurreko kurtsoaren irakasgaia berreskuratzeko, ikasleak irakasgaiaren eduki guztiei buruzko ezohizko edo aparteko azterketa bat egingo beharko du, non irakasgaiaren eduki guztiak sartuko diren. Ikasleak atera daitekeen gehieneko nota 6 da.	

OHARRAK / OBSERVACIONES

--